

Inoizko parte hartzerik handienarekin dator Nafarroako 43. Bertsolari Txapelketa

Aurkezpena

Urteak joan urteak etorri, Nafarroako Bertsolari Txapelketa Nafarroako euskal kulturaren erreferentzia nagusietakoa bihurtu da. 1936an jarri zen lehen ernamuina, Bertsolari Eguna deitutako jaialdirako egindako hiru kanporaketetako bat Elizondon jokatu baizen. Bertan izan ziren Nafarroako iparraldeko bailaretako eta Baigorriko kantonamenduko ordezkariak. Gerrak eragindako etenaren ostean, 1960an berreskuratu zen txapelketa, Principe de Viana erakundeak bultzatuta, eta sei aldiz jokatu zen, 1966ra arte. 1979an abiatu zen Nafarroako Txapelketaren aro berria, eta urtero egin zen, 2011ra arte. Ordutik, bi urtean behin jokatzeko txapelketa, Bardoak taldekako ekimenarekin txandakatuz.

43.txapelketa honetan, **inoiz baino bertsolari gehiagok eman du izena; 35 izan dira osotara.** Horietatik bederatzik lehen aldiz parte hartuko dute txapelketan; horiekin kanporaketa saio bat egin zen abenduan Iruñean. Kanporaketa horretan lau bertsolarik –Saats Karasatorre (Etxarri Aranatz), Joanes Illarregi (Leitza), Joana Ziganda (Oskotz, Imotz) eta Sahats Aleman (Arika, Berriobeiti)- lortu zuten final-laurdenetarako txartela. Horrenbestez, 30 bertsolariekin abiatuko da final-laurdeneko fasea.

Guztira, beraz, hamar saio izango ditu Nafarroako Bertsolari Txapelketak; abenduan egin zen kanporaketarekin batera, **otsailaren 18tik apirilaren 8ra bitarte** jokatu diren bost final-laurdenek, hiru finalurrekoek eta finalak osatuko dute egutegia. **Iruñeko Anaitasuna kirolegian jokatu da finala,** apirilaren 8an.

Argi dago Nafarroako Bertsolari Txapelketa urtean zehar egiten den lan isilaren fruitua dela. Parte hartzaile kopuru handiak erakusten duen sasoi ona estuki lotuta dago azken urteotan Nafarroako Bertsozale Elkarteak transmisio arloan egin duen lanarekin. Horren bitartez, gazte eta helduek bertsolaritza ezagutzea lortzen da, eta horretan aritzeko aukerak ere ematen dira. Gero eta gehiago dira Nafarroako herrietan sortzen ari diren gaztetxo zein helduentzako bertso-eskolak.

Bertso-eskolekin batera, oso garrantzitsua da Nafarroako ikastetxeetan garatzen den ekimena, 'Bertsolaritza irakaskuntzan' programaren transmisioa, alegia. Hezkuntza Sailaren eta Udal zein Mankomunitateen konpromisoari esker, urtero 2.400 ikaslek baino gehiagok ikastorduetan bertsogintza eta ahozkotatua lantzen dute.

Helburuak

Txapelketa, Nafarroan bertako bertsolaritza sustatzeko modu ezin hobea da. Lau dira Txapelketaren bitartez lortu nahi diren helburu nagusiak:

- * Zaletasuna dagoen tokietan bertsolaritza sustatzea eta horren zaletasun handia ez dagoen inguruetan ezagutaraztea.
- * Nafarroako bertsolariak motibatu eta ezagutzera ematea. Txapelketak haientzat erakusleihu izan behar du. Urtero 200 bertso saio inguru egiten dira Nafarroan, baina

horietako batzuetan ez dira Nafarroako bertsolariak izaten. Horiei protagonismoa ematea da helburua.

- * Han eta hemen bertsolaritzaren alde lanean ari diren guztiak elkartzea. Txapelketan bakoitzak ahal duena ematen du, eta parte hartzen duten 80 bat lagunaren arteko elkarlana ezinbestekoa da urtean zehar gainerako egitasmoak aurrera eramateko.
- * Bertsolaritzak Nafarroan duen prestigioa handitzea, eta jarduera kultural gisara gizarte osoari ezagutaraztea, euskaldunei zein erdaldunei.

Saioak

1. final-laurdena

Otsailak 18,
larunbata, 17:30

Tafalla

Centro Cultural
Tafalla Kulturgunea

Julio Soto
Kotte Plaza
Iñigo Olaetxea
Iban Garro
Mikel Lasarte
Sahats Aleman

2. final-laurdena

Otsailak 19,
igandea, 17:30

Auritz

Kultur Etxea

Xabier Terreros
Saioa Alkaiza
Alazne Untxalo
Patxi Castillo
Ioar Tainta
Joana Ziganda

3. final-laurdena

Otsailak 26,
igandea, 17:30

Lakuntza

Kultur Etxea

Eneko Lazkoz
Aimar Karrika
Oier Lakuntza
Iker Gorosterrazu
Joanes Illarregi
Egoitz Gorosterrazu

4. final-laurdena

Martxoak 4,
larunbata, 17:30

Irurita

Gizarte Bilgunea

Oskar Estanga
Julen Zelaieta
Amaia Elizagoien
Josu Sanjurjo
Ekaitz Astiz
Saats Karasatorre

5. final-laurdena

Martxoak 5,
igandea, 17:30

Uharte

Arte Garaikideko
Zentroa

Eneko Fernandez
Ander Fuentes
"Itturri"
Sarai Robles
Xabier Maia
Irati Majuelo
Oscar Sanz de Acedo

1. finalurrekoa

Martxoak 18,
larunbata, 17:30

Bera

Kultur Etxea

(Final-laurdenetan
sailkatutako sei bertsolari)

2. finalurrekoa

Martxoak 19,
igandea, 17:30

Antsoain

Antzokia

(Final-laurdenetan
sailkatutako sei bertsolari)

3. finalurrekoa

Martxoak 26,
igandea, 17:30

Agoitz

Kultur Etxea

(Final-laurdenetan
sailkatutako sei bertsolari)

Finala

Apirilak 8,
larunbata, 17:00

Iruñea

Anaitasuna kiroldegia

(Finalurrekoetan
sailkatutako zortzi
bertsolari)

Faseak

Final-laurdenak

- * Bost final-laurden, seina bertsolarirekin.
- * Hemezortzi bertsolari sailkatuko dira finalaurrekoetara, final-laurden bakoitzeko lehenengo sailkatuak eta hamahiru puntuaziorik onenak.

Finalaurrekoak

- * Hiru finalaurreko, seina bertsolarirekin.
- * Zortzi bertsolari sailkatuko dira finalera, finalaurreko bakoitzeko irabazlea eta bost puntuaziorik onenak.

Finala

- * Zortzi bertsolari arituko dira. Lehenengo bi sailkatuen artean buruz burukoa jokatu da.

Egin beharreko lanak

FINAL-LAURDENAK

- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
- * Kartzelako lana
 - * Banaka, lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian
 - * Banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian

FINALAURREKOAK

- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean
- * Kartzelako lana
 - * Banaka, lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian
 - * Banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian

FINALA

- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- * Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian
- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
- * Banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian

Buruz-burukoa

- * Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte
- * Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean
- * Kartzelako lana
 - * Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

Sarrerak

Final-laurdenak

Bazkideak eta 16 urtetik beherakoak: 4 euro
Helduak: 6 euro

Finalaurrekoak

Bazkideak eta 16 urtetik beherakoak: 6 euro
Helduak: 10 euro

Finala

Bazkideak eta 16 urtetik beherakoak: 12 euro
Helduak: 18 euro

- * Saio guztietarako sarrerak aurrez internetez erosten ahalko dira, www.bertsosarrerak.eus atariaren bitartez. Horrez gain, saioak egingo diren herrietan ere aurre-salmentarako guneak egongo dira.

Azken txapeldunak

1997	Xabier Silveira
1998	Estitxu Arozena
1999	Bittor Elizagoien
2000	Amets Arzallus
2001	Amets Arzallus
2002	Amets Arzallus
2003	Amets Arzallus
2004	Xabier Silveira
2005	Xabier Silveira
2006	Xabier Silveira
2007	Xabier Silveira
2008	Julen Zelaieta
2009	Xabier Silveira
2010	Julio Soto
2011	Julio Soto
2013	Xabier Silveira
2015	Julio Soto

Aurtengo ezaugarri nagusiak

2017ko Txapelketak dituen ezaugarri nagusien artean, honakoak dira bereziki azpimarratzeko modukoak:

- * Inoizko parte hartzaile kopururik handiena du aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketak, 35 bertsolari, 2015ekoan baino bi gehiago. Horrek argi erakusten du Nafarroako bertsolaritzak egun duen dinamismoa. Horietatik bederatzi dira lehen aldiz izena eman dutenak: Leitzako Joanes Illarregi, Barañaingo Ainara Ieregi, Ander Baiano eta Mintxo Astiz, Etxarri Aranatzeko Saats Karasatorre, Oskotzeko (Imotz) Joana Ziganda, Aldazko (Larraun) Luis Mari Larreta, Artikako (Berriobeiti) Sahats Aleman eta Azpirozko (Larraun) Aitor Irastortza.
- * Parte-hartzaile kopuru handiaren ondorioz, kanporaketa saio bat egin zen abenduan txapelketan izena eman duten bederatzi bertsolari berriekin. Kanporaketa abenduaren 16an jokatu zen Iruñean eta saio horretako lehen lau sailkatuek final-laurdenetara sailkatzea lortu zuten: Saats Karasatorre, Joana Ziganda, Sahats Aleman eta Joanes Illarregi.
- * Finala 2015ean Elizondon egin bazen ere, aurtengoan berriro ere Iruñera itzuliko da, Anaitasuna kiroldegira. Apirilaren 8an izanen da, larunbatarekin, eta biharamunean Korrikaren amaierako jaia ospatuko da Iruñean. Asteburu guztian zehar beraz, Nafarroako hiriburua euskalgintzaren eta kulturagintzaren gune bizia bilakatuko da.
- * Txapelketak Tafallan izango du hasiera, otsailaren 18an. Ohi bezala, eremu geografiko ezberdinetako herriak hartuko ditu barne txapelketak, bertsozaletasun handikoak zenbaitetan eta transmisio maila baxuagoa dutenak besteetan. Iruñerrian hiru saio antolatuko dira - Uharten, Antsoainen eta Iruñean-, eta bat Tafallan. Ekialdean bi saio egingo dira: Auritzen eta Agoitzen. Baztan/Bidasoan beste bi saio: Iruritan eta Beran. Eta Sakanan saio bakarra, Lakuntzako final-laurdena.
- * Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen bost sailkatuek 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatzeke aukera izango dute. Aurtengo udazkenean abiatuko da txapelketa nagusia. Lau urtean behin jokatzen da.
- * Epaille taldea zazpi lagunez osatua dago: Saioa Mitxelena, Nerea Bruño, Arkaitz Goikoetxea, Iزارo Mitxelena, Jon Abril, Mikel Beaumont eta Joseba Beltza.
- * Txapelketarako gai-jartzaile taldea berriz, honakoek osatzen dute: Alaitz Rekondo, Rosita Anakabe, Fernando Anbustegi, Iker Mundiñano, Elisa Almandoz, Maider Ansa, Miren Bidarte, Pablo Perez, Ainhoa Iriarte, Kizkitza Mujika eta Ainhoa Aranburu.

Babesleak eta laguntzaileak

- * 2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketak honako babesleak ditu: Laboral Kutxa eta Iruñeko, Agoizko, Antsoaingo eta Berako Udalak.
- * Beste zenbait erakunde eta enpresek ere diruz lagundu dute txapelketa: Tafallako, Aurizko, Lakuntzako, Baztango eta Uharteko Udala, Arkupe txokolateak, Esarte, Aroz-Berri, Sagardiko Edariak, Montxo ostatua, Josenea, Albaitaritzza, Arrieta hestebeteak eta Nafarroako Sagardogileen Elkarteak.

Webgunea eta sare sozialak

Txapelketaren jarraipena egin ahal izateko www.bertsozale.eus web gunean informazio eguneratua eskainiko da, besteak beste:

- * Parte-hartzaileen biografiak eta argazkiak
- * Saioen gaineko informazioa
- * Puntuazioak eta sailkapen eguneratua
- * Sarrerren gaineko informazioa
- * Saioetako albisteak, argazkiak eta bideo-loturak

Horrez gain, www.bertsoa.eus web gunean saioetako laburpenak ikusten ahalko dira. Hitzetik Hortzera telebista saioak ere jarraipen berezia egingen dio Nafarroako Bertsolari Txapelketari.

Sare sozialen bidez ere, Nafarroako Bertsolari Txapelketa segitzeko aukera izanen da. Facebook-en Nafarroako Bertsozale Elkartearen bitartez eta Twitter-en (@unibertsoa).

Txapelketaren inguruko edozein informazio nahi izanez gero, deitu 948143747 / 669156736 telefonoetara edo idatzi nafarroa@bertsozale.eus helbidera.

